

DROGETEN ITTURRI


Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 232. zkia. 2015eko martxoa



Euskararen aldeko oihua

GREMIOEN

GIDA



DEKORAZIOA
OBREN KOORDINAZIOA * MARIAN CABRACEDO DEKORATZAILEA

dekorazio estudioa

trastévere
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56

Goienkale z/g

PINTURAK

J. LUCAS

PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

ELEKTRIZITATEA

BETA

**ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

ETXE-BIRGAITZEAK

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOK
LAGINDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 38, 3º 48200 Ermua-Bizkaia

PERTSIANAK

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

AROTEGIA

iraner
Puertas EDER Carpintería

- Ateak, horma-armairuak, tarimak...
- Burdindegiko artikulak salgai
- Giltzen kopiak, ebanisteria
- Gremioen koordinazioa

Bizkaia etorbidea 10, behea Ermua. Tel. 943174925 - iranercb@gmail.com

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

ARGITARATZAILEA:Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.**HELBIDEA:**Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org**ERREDAKZIO TALDEA:**Alazne Aiestaran,
Igone Amesti, Ibaia
Azagirre, Leire Elustondo,
Estibalitz González
eta Ekhi Velar.**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Valentin Mugarza.

LAGUNTZAILEAK:Amaia Arriaga, Antonio
Hernández 'Cuco',
Fede Iturriagagoitia,
Patxi López,
Pello Mugarza,
Valentin Mugarza eta
Lurdes Perosanz.**ARGAZKIAK:**Jabi Alberdi, Igone Amesti,
Amaia Arriaga, Ibaia
Azagirre, Leire Elustondo,
Estibalitz González, Ongarai
Eskola, Kaltxango AEK,
Eneritz Aranburu, Lurdes
Perosanz, Izaro Andres,
Alazne Aiestaran, Valentin
Mugarza, Dorleta Vidal eta
Ekhi Velar.**PUBLIZITATEA:**943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.**TIRADA:**

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

ARRATOI ARRUNTA *rata común Rattus norvegicus*

Ur-arratoia, basoko beltza edo arratoi arrunta izan, hirurak gure parajeotako biztanle, itxura eta ohitura bertsukoak dira, habitat desberdinetan bizi badira ere. Zein den zein jakin nahi izanez gero, belarrietara, ilearen tonura edo buztanaren luzerara erreparatu behar. Gizakiarengandik hurbil xamar beti, horri esker loditzen da: jateko-hondakinekin hiri inguruan eta baserri bueltan ganbarako arto, sagar edo patatekin zein kortako pentsuekin. Horiek amaitu edo eskura ez ditueanean, gogotsu kolpatzen die paper, manta eta arropa zaharrei, bere agin zorrotzekin zihetz karraskatuz. Gautxoria, ilundu osteko eta eguna zabaldu aurretiko bi orduetan ibiltzen da lanpetuen. Katua da bere areriorik gogorrena, eta botikak gero. Immunizatu eta aurre egiten ez dien bitartean!



Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4Yoli Guzman eta Richard Moran
(Ekuador)**ELKARRIZKETA**5-7

Izaro Andres, abeslaria

MALLABIAN ZER?8-9

Gessami Forner, blogaria

MOTZEAN.....10-11

Zuhaitz Eguna

KORRIKA 19.....12-13

Argazkiak

ERMUAN ZER?14

Leire Narbaiza, irakaslea

ESKOLEN TXOKOA15

Ongarai Eskolako berriak

BOTEPRONTOAN16

Aitor Ortega

KIROLZALE17

Multikirola

IRITZIA18

"Ezberdinak bai, baina aukera berdinekin bizi nahi dugu"

SALEROSKETAK19

Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK.....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

KALEKO INKESTA21

Liburuak irakurtzeko: paperean edo euskarri digitalean?

AGENDA22

Apirileko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de BizkaiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOHEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaDEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Yoli Guzman eta Richard Moran

Yoliren ahizpa Richarden ikaskidea zen eta haren bitartez ezagutu zuten elkar. Maitasun istorioak Ekuadorren du hasiera eta Ermuan jarraipena. 90. hamarkadatik ditugu herrian euren bi semeekin batera.

-Ekuadorren jaio, ezagutu eta ezkondu zineten. Zergatik erabaki zenuten hona etortzea?

Richard: Nik lan ona neukan, baina naturaren ondorioz dena pikutara joan zen, 1998an 'El Niño' delako fenomenoaren etorri zelako Ekuadorrera. Nik arroz, arto, soja... biltegi batean lan egiten nuenez eta zortzi hilabetez eurria egin zuenez, landaketa guztiak bertan behera geratu ziren. Enpresak zortzi bat bulego zituen estatu osoan zehar eta gurea zen indartsuena, nekazaritza gune handian zegoelako, baina hura ere itxi egin zuten.

Yoli: Hala ere, guzti horrek beste kausa bat ere badauka: Argentinan 'Korralittoa' gertatu ostean, Ekuadorren antzeko krisia egon zen. Bankuak itxi zituzten egun batetik bestera eta ezin zen dirurik atera. Hori izan zen azken kolpea eta jendea emigratzen hasi zen: Amerikako Estatu Batuetara, Italiara eta gero Espainiara. Lagun asko irten ziren Ekuadorretik. Richardek lana utzi behar izan zuen eta ia ezinezkoa zen lana aurkitzea, ez zegoen dirurik. Ni irakaslea nintzen, baina



gaizki ordaintzen dituzte irakasleak han. Beraz, egun batetik bestera esku hutsik geratu ginen. Ez zitzaigun jatekorik falta, baina gauzak gaizki zihozela ikusi genuen eta beste toki batera joatea pentsatu genuen. Nire ahizpa Ermuan bizi zen eta Richardek etortzea erabaki zuen.

-Erabaki zaila?

R: Ez zen erraza izan. Gonbidapen gutunarekin etorri nintzen, turista moduan, ni bakarrik. Izututa nengoen. Egonaldia ona izan zen, baina sufritu egin nuen.

-Yoli, zu Ekuadorren geratu zinen?

Y: Bai.

R: Urte eta erdi egin genuen horrela, eurak etorri arte. Semeak txikiak ziren eta zaila zen eurekin etortzea. Hemen dokumentazioa eta baimenak lortzen saiatu nintzen eta, horretarako, Jaenera joan behar izan nintzen

lanera, oliba batzera. Ez zen batere erraza izan lan-baimena lortzea, baina hainbat pertsonak asko lagundu zitadaten. Urtebete pasa zen baimenak lortu ahal izateko.

-Zerk harritu zintuzten gehien hona heltzean?

R: Zeinen ozen egiten duen berba jendeak. Laneko nagusiek euren artean berba egiten zutenean, ea borrokatu behar ziren galdetzen nien.

Y: Niri ere jaja! Jateko ordutegiek, klima... dena zen ezberdina.

-Egoera asko aldatu da Ekuadorren?

Y: Ekuador oso ondo dago orain, baina denbora behar du oraindik. Gaur egun gobernuak lan handia egin du eta herrialdea asko hazi da. Ekuador, Latinoamerika bezala, ez da txiropa, baina beti egon dira gobernari txarrak.

Ekhi Velar

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA

1968tik Ermua euskalduntzen



Izaro Andres, abeslaria:

“Nire ametsa bete dela esango nuke”

Musikaren paradisia ezin da egon Izaro Andresen ahotsetik oso urrun. ‘Paradise’ abestiarekin publikoaren arreta jaso du modu masiboan Mallabiko gazteak eta hankak lurrean baditu ere, amets egiten du Euskal Herriko eszenatoki gainean ia astebururo. Entzuleek, bitartean, gozatu. Ez da zaila. Hitz politikak jaso ditu bere lanagatik, bere ametsa betetzen jarraitzeko bultzakada. Paradisurako bidea hasi besterik ez du egin.

-‘Paradise’ izeneko bideo-klipak oihartzun handia izan du Youtube-n, sare sozialetan...

Bai, demasekoa, jaja!

-Espero zenuen?

Ez. Bideoan nirekin gitarra jotzen agertzen den lagunak komentatu zidan zerbait grabatu behar genuela. “Ekarri zure kantu bat, ‘Paradise’”, eta Bartzelonan zine ikasketak egiten diharduen bere koadrilako batek grabatu zigun. Bideoa grabatu, editatu eta Facebookera igotzeko asmoa geneukan, lagunei erakusteko beste barrik. Baina bat batean bideoa zabaltzen hasi zen eta ez dakit orain 13.000 bisita baino gehiago ez dituen... niretzat kopuru izugarri handia! 300 izango balira, badakizu ikusi dutenak lagunak edo ingurukoak direla, baina 2.000, 3.000 eta 13.000 ikusle daudenean, badakit ez ditudala hainbeste lagun! Jende ezezagun askok ikusi eta entzun du bideoa, eta ez nuen espero. Oso pozgarria da.

-Bideokliparen arrakasta horrek ondorioak izan ditu? lan edo proiektu proposamenik izan duzu horren oihartzunaren ostean?

Bai. Bideoa sarera igo nuenetik, astebururo kontzertu bat edo bi eskaintzen ditut, eta udara arte dena lotuta daukat gutxi gora behera. Guztia azkarregi joan

da eta proposamen asko jaso ditut. Orain dela pare bat aste Gernikan Zea Maysen aurretik jo nuen eta Bilboko Kafe Antzokian Maika Makovskiren aurretik. Eskerrak ordubetez jotzeko erreperitorioa prest neukala. Imajinatu kantu bat bakarrik edukitzea!

-Ikus-entzule asko izateaz gain, jaso dituzun kritikak ere oso onak izan dira. Nola kudeatzen duzu hori guztia?

Bai, kritika guztiak onak izan direla esango nuke. Agian, leporatu didaten gauza bakarra izan da euskaraz ez abestearen kontua. Hala ere, ondo hartu nuen hori, nire lanarekiko arreta bada goela interpretatu dudalako eta behin hori lortuta, nik uste dut gehiena eginda dagoela. Ez nuen arreta hori espero, inolaz ere. Jendea deika dabil, edozer gauzatarako adi, kontzertuetara hurbiltzen, ‘Paradise’ abesten dute... Izugarria da! Esan behar dut, hala ere, nire abesti gehienak euskarazkoak direla, baina bideokliperako bat aukeratu behar izan nuen eta konposatu nuen lehena ‘Paradise’ izan zenez, hori aukeratu nuen. Kontzertuetan euskaraz, gaztelez eta ingelesez abesten dut.

-Abesti guztiak zuk konposaturikoak dira, doinua, letra... dena?

Bai, 13 abesti dauzkat.

*Izaro Andresen hurrengo kontzertuak 9. orrian



Udan hasi nintzen gitarra jotzen, etxean eta nire kabuz. Orduan, konposatzeko beste badaukat, baina azken kontzertuetan bi lagunek lagun du didate ganorazko oinarri musikala edukitzeko. Gainera, ez da gauza bera eszenatokira zu bakarrik igotzea edo konpainiarekin. Are gehiago zure ostean Zea Mays bezalako talde indartsu bat badator; edo Maika Makovski, bera bakarrik aritzen bada ere, ez duelako bandarik behar daukan indarrarekin.

-Burua galtzen duzu jaso-tako laudorioekin?

Ez, inolaz ere. Oso bat-batekoa da guztia eta etorri den moduan joan daiteke. Dena gauzatzen bada, eta hori espero dut, ba ondo. Bestela, gauzak horrela dira eta orain bideoak bisita asko baditu ere, hiru aste barru zeinek daki zenbat izango dituen.

-13.000 bisita ez da gutxi. Mallabitik harago, Euskal Herri osora zabaldu da gutxienez zure abestia.

Bai. Gehien bat Bizkaia aldean ibili izan naiz kontzertuak ematen (Lekeitio, Gernika, Bilbo, Larrabetzu...), baina Gipuzkoan ere banabil (Donostian, Mutrikun...).

-Sortu dituzun beste abestiak ere ‘Paradise’ kantuaren estilo berekoak dira?

Nire estiloa topatzen ari naizela esango nuke. Ez daukat estiloa definituta eta denetarik egin dut. Uste dut ahotsaren erregistroa kantu denetara zabaltzen dudala, ahots urratu hori. Konturatu naiz, gainera, zaila dela berdin abestea hizkuntza ezberdinetan. Melodikoki nire ahotsera ingelesa, euskara eta gaztelez baina hobeto egokitzen da.

“Etorri den moduan joan daiteke dena”



Drogeteniturrri, 232 zkia.




SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12



-Aurretik bideoklipik grabatuta zeneukan?

Ez, hauxe izan da lehen eta bigarrena, 'Astelehenak' izenekoa, joan den ostiralera aurkeztu genuen. Nire nahia, bestetik, maketa bat grabatzea da jendeari audio batzuk eskaintzeko. Bestela, jendea kontzertuetara kantak ezagutu barik joango da eta ez dira kanta ezezagunak ordubetez entzuten egongo.

-Betidanik ibili zara kantuan?

Bai. Mallabiko Koroan aritu nintzen, nahitaezko pausoa, jaja! Baina ez dut musika klaserik jaso, ez naiz solfeora joan, ez dakizkit notak, akordeak etxean ikasi eta oraindik ez dakit nola azaldu zein den zein... Beraz, asko landu behar dut arlo hori. Lantzen dudana heinean, gauza askoz hobek egingo ditut, egiten dudana ulertzen dudalako.

-Beraz, musika ikastea da zure asmoa?

Nahiko nuke, baina orain



"Nire estiloa topatzen ari naizela esango nuke"

nahiko asetuta nago. Dena hain bat-batekoa izan da (kontzertuak astebururo, ikasketak...), eta hainbeste gauza esku artean! Elkarrizketak eskatzen dizkidate eta ez nago ohituta. Mundu guztiari gustatzea nahiko nuke eta nolabaiteko presioa sortzen dit horrek: ea nola irte den hurrengo bideoklipa, ea kontzertua gustatzen zaien... Orduan, erabaki dudana da mugak ipintzea. Adibidez, bi asteburutan kontzertua eskaini eta hurrengoan ez. Baina tira, gaztea naiz eta egiten dudana gustatzen zait.

-Familiar artistarik badago?

Nire osabak gitarra jotzen du eta baita lehengusuak ere, baina nolabaiteko izena egin duen bakarra ni izan naiz. Izena egin edo, ez dakit. Azalatu behintzat.

-Zure izena han eta hemen entzuten da bada.

Nire ametsa bete dela esango nuke. Gernikako Astran 200 pertsona ingururen aurrean egon, denak zuri begira, zure kantuak abesten eta zu isilik... "hemen hil

naiteke" pentsatu nuen. Fenomenoa gora joango balitz, bikain, baina bestela pozik nago jada.

-Oraingo oihartzunaren aurretik, hala ere, telebistan ere ikusi ahal izan zintugun ETB-ko 'Izarrak' saioan. Nolako esperientzia izan zen?

Telebistan ikusten dena eta benetan dena ez datoz bat. Dibertigarria, entrete-nigarria, ordu eta gezur asko, azken finean, telebista. Ez diot lehiaketa berarengatik, baina antzerki asko dago inguruan. Ondo portatu ziren nirekin, baina ez nuke lehiaketa batean berriz ize-nik emango.

-Komentarioak irakurriz gero, badirudi jendeari gustatu zitzaioela zure emanaldia.

Ba galdu egin nuen! Gehiago izan da 'Paradise' osteko fenomeno, gehiago baloratu dute gero. Hala ere, Facebook bitartez jaso nuen ezezagunen mezuren bat edo beste zoriontzen. Jendea oso jatorra da eta ez du lotsarik, eta eskertzen da.

Ekhi Velar

**AMAIA
HARATEGIA**



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

**es
egolek**
electrizaritatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75

banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE eta INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Gessami Forner Vallés, kazetaria, blogaria eta argitaratzailea:

“Minis liburuxkak, Kinder arrautzaren alternatiba izatea nahi nuke”

Castellokoa izatez, bere burua bilbotartzat duen kazetari hau, lau urteko alaba Emma eta senar Jensekin bizi da Mallabian joan den urte bi t'erdian. Madreprimeriza.com blogean argitaratzen ditu amatasun eta beste hainbat gauzari buruzko bere idatziak, eta orain Minis liburuxkak argitaratzeri ekin dio. Laster da martxan bere

www.editorialminis.com web orria

Liburu txikiak, originalak, 3-5 urte bitarteko haurren eskuetara ongi egokitzen direnak, irakurterrazak direla dio 34 urteko emakume ekintzaile honek. Alemaniako lagun batek bidali zizkion Emmari hain hain ohiko diren Pixi Bücher izeneko liburuxkak. Supermerkatuetan ere saltzen diren liburuxko horiek arrakasta handia dute Alemanian, “ikusit bezain laster jakin nuen hau zela egitea nahi nuen, aspalditik nengoen enpresa bat sortzeko gogoz”. Gessamiren esanetan, haurren bizitza azukrez gozatzekak istorio txikiez gozatzek baino merkeago ezin du izan. “Liburuxkak Kinder arrautzaren alternatiba izatea nahi nuke, bakoitza 1,5 eurotan eros dezakezu, gero askotan irakurtzeko. Arrautzak aldiz 1,20 euro balio du eta behin jaten duzu”. Ideia hori garatu eta forma eman nahian, enpresa kudeaketarako master batean eman zuen izena.

Horrelako liburuak egin badaude, “klasikoak gehienbat, Txanogorritxu, Hiru txeritxoak, baina ez dira egokitzen gaur egungo bizitzara”.

Ezegunaren metafora diren arren, otsoak eta animalia basatiak “oso urruti geratzen zaizkie gaur egungo haurrei”. Bere inspirazio iturri alaba Emma du eta haur txikien egunerokotasuneko hainbat pasadizo jasotzen dituzte bere liburuxkek. Kazetari izan eta erredakzio batean lan egin izanak asko lagundu diola adierazi du eguneroko istorioei ikuspegia topatu eta forma narratibo egokia ematen. Gaikako bilduma egiteko asmotan bazen ere, “beldurrrak izan dira istorioen muin nagusi”, haztea beldurrrak gaintzea dela baieztatzen du Gessamik. Berak ere sentitu izan duen beldurra, “batez ere enpresa sortzeko lehen urratsetan”. Beldurra bizitzaren parte dela dio: “Lanean nagoenean neu ere neure beldurren aurrean nago; gustatuko zaio jendeari, salduko ote dira...”. Ekintzailea izateak hanka sartzea dakar eta hortik abiatuz ikasi egiten dela dio, modu arduratsuan jokatuz beldurrrak gaintuz eta era horretan arrakasta lortuz. “Bakarrik nago eta mantso doa gauza, baina tin-



ko”. Geroz eta garrantzitsua goa da bakoitzak bere lana sortzeko aukera izatea Gessamiren esanetan, eta laguntza asko jaso du Ermuko Izarra Centre-ko enpresa mintegian.

Durangoko azoka “majikoa”

Behin liburuxkak inprimatuta eta eskuan, beldur eta zalantzak gainetik astintzeko erakusleho ezin hobea izan zen 2014ko Durangoko Liburu eta Disko azoka Gessamirentzat. Euskal Herrira kazetaritza ikastera etorri zen orain dela 15 urte. “Urtero joan izan naiz Durangoko azokara, bertan egotea erronka zen niretzat eta lortu nuen”, azpimarratzen du. Jendeari gustatu zitzaizkion Minis-ak, oso ondo saldu ziren eta behar zuen hori ikustea. “Nire euskara maila eskasarekin ondo konpondu nintzen, majikoa izan zen!”, dio.

Mallabia eta Internet, ezinezko bikotea

Bere blogean familiaren egunerokotasuna jasotzen du eta azken bi urte t'erdian Mallabiako inguruak ere ikus daitezke. Mallabian zail egin zaio lana, batez ere internet konexio mantsoagatik. “Nire bizitza interneti lotuta dago eta Mallabian oso zail egin zait, Ermuko Izarra Centrerako jo behar izan dut”, kexatzen da. Senarrak Zaldibarren lan egiten duelako eta naturaz inguratuta bizitzea zer zen frogatu nahi zutelako etorri ziren Mallabira, “abenturara”. “Haurarentzat ezin hobea izan da Mallabian bizi izatea eta oso jende jatorra ezagutu dugu bertan baina gure bizitza Bilbon dago”. Han dituzte lagunak, ekintzaz beteriko hiri bizia maite dute. “Gu oso urbanitak gara, zaila izan da neguko aspergurari aurre egitea ohituta gaudenean etxetik kalera atera eta edozein aktibitate topatzera kalean”.

Eneritz Aranburu

Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ilre-apändegi bat
baino gehiago!!

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

KONTZERTUE HERRIKON

Txaparrada Kultur Elkartiek antolatute, Samantha Navarro abeslari, gitarrista eta konpositore uruguaiar ospetsuek kontzertue emongo dau apirilaren 1ien gabeko 23etan Herriko Tabernan. Samantha Navarro 1994en "Primer Festival de la Canción Inedita" lehiaketa irabazita egin zan ezagun. Harrezkero, 10 disko kaleratu ditu. Momentu honetan bere azken lana "Saltar al tiempo deseado" diskoaren aurkezpen giriaz dabil.

MALLABIKO GAZTE TALDIE

"Zu zergatik ez?" izenakin herriko gazte ezberdinek sustatu dabean Mallabiko gazte taldean aurkezpena egin zan martxoaren 18xen, arratsaldeko 20:00etan kultur etxien. Bertan 16-27 urte bittarteko 27 bat gazte elkartu zien. Otsailaren bukaeran gazte batzuk herriko gazterixian inguruko hausnarketa batekin hasi zien: herrixen zer falta da? zer egin biherko litzake gaztie elkarrekin harremantzeko? Ze ekintza egin ahal dabez gaztie alkarrekin? Zelan konpartidu



geinkez dittugun gure zalantzak? Atara gure intereseko gaixek?

Ordutik, pare bat batzar egin dittue; eta batzar bakotxien gazte gehixa elkartzen jun die. Hortxe bildutekuek, erabaki eben euren galdera, ideia eta proposamenak batzen dittuen proiektue zabala izen bidala, herriko gazte danek parte hartu ahal izeteko. Hor ekin eutsien Mallebiko 16-30 urte bitarteko gaztien zerrenda bat egittiai, danak proiektu honetara gonbidatzeko asmuaz.

Gazte taldiek proposatzen dabean talde hori, antolakuntza zabalekue da, gaztie euren artien harremandu eta dinamizatzeke. Hori aurrera erueteko, hurrengo hitzordue apirilak 17, barikuen daukie, arratsaldeko 20:00etan kultur etxien. Beraz, mallabitarra bazara, eta gaztie, hor doie zuretzako be gonbidapena.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

Samantha Navarro
Montevideo - Uruguay-tik www.samanthanavarro.com

El año 1994 ganó, junto a Inés Pierri, el "Primer Festival de la Canción Inédita"

Discos:

- 1996 - "Samantha Navarro"
- 1998 - "Mujeres Rotas"
- 2000 - "Tengo recuperación"
- 2002 - "Poemas"
- 2004 - "La Dulce en vivo"
- 2005 - "música original para Groenlandia"
- 2008 - "Sed"
- 2010 - "Volver al inicio"
- 2011 - "Santuario"

En la actualidad esta de gira presentando su nuevo disco:

Saltar al tiempo deseado

APIRILAK 1 Asteazkena 23:00etan
Mallabiko Herriko Tabernan

Antolatzailea: Txaparrada Kultur Elkarte

IZARO ANDRESEN HURRENGO KONTZERTUEK

- Apirilak 10, 22:30 Elgoibarko Gabaz Tabernan
- Apirilak 17, 22:30 Berritxuko gaztetxien
- Apirilak 24, 22:00 Durangoko Oromiño auzuen
- Apirilak 30, ordu zehazteke, Gasteizko Oihaneder euskara etxien

SEHIGA

PROTECCION LABORAL
PLAN BABESERAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

mari asun

LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379



MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€), menua bokatak, plater konbinatuak, pintxoak, kazolak, arraina eta txuleta parrillan (enkarguz)...

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIA

ETXERA

943 174 952 (asteartetan itxita)

ASIER URBIETAREKIN SOLASALDIA LABURBIRAN

Laburbirak, film laburren zirkuituak, euskarazko zinemagintzaren zortzi lan aurkeztuko ditu martxoaren 28an Ermuko Antzokian 20:30etatik aurrera. Horiez gain, zirkuitutik kanpo, iaz Ermuko Gazte Asanbladak antolatutako film laburren lehiaketaren lan sariduna ere egongo da ikusgai, Eider Gisasola eta Hiart Redondoren 'Kometak' lana.

Filmak ikusteaz gain, horietariko baten zuzendariekin solasaldia egiteko aukera ere luzatuko du Laburbirak. Zehazki, 'Arconada' filmeko zuzendaria den Asier Urbietarekin berba hartu emana izateko beta egongo da. Zinegile euskaldunak telebistan, iragarkietan eta film laburren alorrean eskarmentua dauka, eta Realeko atezain mitikoaren abizena daraman filmarekin dator Ermura.

Folkez Blai 2015erako epea zabalik

Folkez Blai 2015ean parte hartzeko epea zabalik egongo da martxoaren 15etik eta maiatzaren 15era bitartean. Interesa duten taldeek lau abesti jasotzen duen grabazioa aurkeztu behar dute, horietatik bi, gutxienez, originalak izan beharko dira.

Lehiaketak bi fase izango ditu. Lehenengoan, lehiaketara aurkeztutako grabazioak aztertu eta hainbat aukeratu dira. Bigarrenean, finalera heltzen diren 6 taldeek Orbe Kardinalaren plazan zuzenean joko dituzte beraien abestiak irailaren 11, 12 eta 13an.

Sailkatuak izan arren sarituak ez diren taldeek 400 euro jasoko dituzte (emanaldia egiteko Ermuraino etorri behar izateagatik). Folkez Blai lehiaketa irabazten duen taldeak, bestetik, 3.000 euro jasoko ditu eta, bigarren sailkatuak, 1.500 euro. Gainera, Folkez Blai-eko hurrengo edizioan eta Getxofolk jaialdian talde gonbidatu moduan aritzeko aukera izango du talde irabazleak.



38. EUSKAL JAIA ERMUAN

APRILAREN 18an
18:00 DANTZA ERAKUSTALDIA
 ASSOCIACIO CULTURAL GRUP DE DANSES DE CABANES.
 KEZKA DANTZA TALDEA
 TXINDURRI DANTZA ETA TXISTU TALDEA
20:00 ERROMERIA: ALAI TALDEA

APRILAREN 19an
12:00 KALEJIRA
17:00 DANTZA ERAKUSTALDIA
 ORBE KARDENALAREN PLAZAN
BAT, BI, HIRU FESTARA!
 HAURRENTZAKO ERROMERIA

XXXVIII. Euskal Jaia

38. urtez ospatuko da Euskal Jaia Ermuan apirilaren 18 eta 19an Txindurri Dantza Taldeak antolatuta. Festarekin hasteko dantza erakustaldia eskainiko dute Associació Cultural Grup de Danses de Cabanes (Castelló), Kezka Dantza Taldeak (Eibar) eta Txindurri Dantza Taldeak. Jarraian erromeria egongo da Alai Taldearen eskutik. Apirilaren 19an, bestetik, 12:00etan kalejira egingo da eta, bazkal ostean, 17:00etan, dantza erakustaldia eskeiniko dute berriz ere Orbe Kardinalaren plazan. Ekitaldiek amaitzeko, haurrentzako erromeria hasiko da 18:00etan 'Bat, bi, hiru festara!'-ren eskutik.

MUGA **MUGIKORRA**

San Pelaio 4A behea
 Telefonoa: 17 64 77
 ERMUA

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
 Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435
 zuzenbidekontuak@gmail.com

Iberikoetan espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 - ERMUA
 943 172 412

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
 943 030 512 / niklinika@gmail.com

Luizia Goienkale kalean

Bi auto behean harrapatu zituen igandean 01:30etan Goienkale kalean gertatutako luiziak. Gertaerak bestelako minik eragin ez bazituen ere, kalea moztuta geratu zen oinezkoentzat. Udalaren arabera, azken egunotako euriek eta lurraren malda pikoak eragin zuten luizia.



400 pertsona Zuhaitz Egunean

Artarrai Mendi Taldeak antolatuta Zuhaitz Eguna ospatu zen martxoaren 8an. Eguraldia lagun, 400 ume, gazte eta gurasok hartu zuten parte ekimenean. "Mendizaleek eta natura babestu nahi dugunok (ume, gazte, zein heldu) bat egin genuen Joxion, Sallabente auzoaren gainean, 250 zuhaitz inguru landatzeko", Artarrai Mendi Taldekoek adierazi dute. "Gehienak pagoak izango ziren, baina haritzak, intxaurreondoak, gereziendoak, hurritzak eta urkiak ere landatu genituen".

Ekintza horren bitartez, Artarraik herritarrek -bereziki umeak- kontzientziatu nahi ditu "zuhaitzek gizadiarentzat duten garrantziaz eta natur guneak babestu beharraz". Euren berbetan, "ez da ahaztu behar basoek planetan duten eragina, besteak beste: CO2-aren isurketen aurka, negutegi efektuaren eraginean, basamortutze prozesuan, bioaniztasunaren eustean, eta ur eta airearen kalitatearen kontrolean, besteak beste".



ERMUA HIRIKO XXI. LITERATUR LEHIAKETA ABIAN

Intriga gai nagusi bezala hartuta, martxan da Ermua Hiriko Literatur Lehiaketa 21. urtez. Lau modalitate-tan parte hartzeko aukera luzatzen dute antolatzaileek: narratiba gaztelaniaz, narratiba euskaraz, olerkia gaztelaniaz eta olerkia euskaraz.

Lanak maiatzaren 5a baino lehenago entregatu beharko dira biblioteca@udalermua.net e-postara idatziz, posta ziurtatuz edo eskuz liburutegian bertan. Irabazleei, 400 eurotako saria emango zaie modalitate bakoitzean.

Modalitateko lan bat aurkeztu ahal izango du parte hartzaile bakoitzak eta lanak originalak, argitaratu gabeak eta bestelako lehiaketaren batean saritu gabeak izan beharko dira. Olerkiek ez dute 100 bertso baino gehiago izan behar, metrika librea izango delarik; eta narratibako lanek gehienez ere DIN A4 tamainako 10 orrialde izan beharko dituzte. Epaimahaiaren erabakia uztailearen 1ean emango da jakitera.

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es


Montis DQ
Mouth


CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

Zure
publizitatea:

943 179350
688 632876
drogeten@gmail.com

DROGETEN
DROGETEN
DROGETEN

ITTURRI
aldizkarian

 **Bobby** Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com

tipi tapa, tipi tapa... **aek**
19.korrika

MALLABITIK





ERMURA

Leire Narbaiza, irakaslea:

“Euskal ganorabakoentzako da Marimaistra”

Ermuko Udal Euskaltegian irakasle izateaz gain, mila aurpegi ditu Leire Narbaizak. Berak dioenez, dena bloga sortzarekin batera etorri zen (eibar.org/blogak/leire). Nor daki! Denetarako trebezia erakutsi du behintzat. Euskararen ‘guru’ den Marimaistra ere bada, euskararen zalantzak uxatzen laguntzen duen pertsonaia. TOM TOM-a baduzue, bere ahotsak gidari edozein tokira eramango dizue.

-Telebistan, irratian, papezko hedabideetan, Interneten... edozein euskarritan aurki zaitzakegu!

Multimedia naiz, jaja! Dena bat batean gertatu da, bloga idaztearen ondorioz azken finean. Agian banaiz inkontziente samarra. Irratian aritzeko aukera iritsi zitzaidanean, aukera polita zela iruditu zitzaidan. Aurretik Matrallako Irratixan ibili izan nintzen eta irratia beti gustatu izan zait. Blogari hizketaldi batean hasi nintzen, gustura ibili eta aukera berria etorri zitzaidanean baietza eman nien. Idazteari dagokionean, Berrian idaztea erronkarik handiena izan da. Irratiarena ere erronka handia zen, baina gaur egun podcastak badaude ere, irratikoa errazago ahazten da. Telebistaren kasuan, Marimaistrarekin, zorakeri totala izan da, dibertimendu bat azken finean.

-Bitxitasun moduan, gainera, TOM TOM-ari ere ahotsa ipini zenion.

Azken urteotan hedabideetan izan dudana presentzia eibar.org-rengaitik izan da, bloga sortu nuelako. Sortu izan ez banu, hau guztia ez litzateke gertatuko. Kontua da eibar.org-n

Gari Araolazak ikusi zuela, TOM TOM-aren ‘tripetan’ ibilita, oso erreza zela euskarazko ahotsak ipintzea. Ordura arte ez zegoen euskarazko ahotsik TOM TOM-ean eta hori egiteko proposamena bota zuen. Nik baietz esan eta arratsalde batean grabatu genuen. Esaldiak itzuli eta grabatu egin genituen Jatsu Argarate teknikariaren begiradapean. Gero ahotsak programan txertatzea besteen kontu gertatu zen.

-Zuk, gainera, eibarreraz egin zenuen.

Bai. Iban Arantzabalek Elgetako euskararen egin zuen, Mikel Iturria eta ‘Amatiñok’ euskara batuan, eta nik Eibarko euskararen. Nik behin bakarrik entzundut TOM TOM-arena, lehen ez nuelako kotxerik eta, orain, ez dut GPS-rik. Batzuk esan didate, “zurekin joan gara Cadizeraino!”. Lehengusina batek honakoa bota zidan: “orain gizonak errua niri bota beharrean, zuri botatzen dizu”. TOM TOM-a GPS-etako sistemarik zabalduena da, eta batzuei ez zaie nire ahotsa gustatu, beste batzuei bai... Bitxikeria polita izan zen.

-Ermuan euskararen bidera gidatzen dituzu euskara ikas-



leak. Noiztik zabilta hemen irakasle bezala?

Hiru sasoi eduki ditut Ermuan eta azkeneko honetan bost ikasturte daramatzat.

-Telebistan ere irakaslea zara, Marimaistra. Nola jaio zen pertsonaia?

Euskararen kalitatearekin kezkatuta nengoen, baina ez euskaltegikoarekin. Eurak ikasketa prozesu batean dabiltzala eta akatsak egiten badituzte, ez da ezer pasatzen, ikasiko baitute. Normala da euskara ikasten daudenek akatsak egitea, denok egiten ditugulako. Baina konturatzen nintzen jende euskaldunak, egunero euskara darabilenak, zenbat akats egiten dituen, erdararen menpe gainera. Euskal ganorabakoentzako da Marimaistra. Baina Marimaistra ez naiz ni bakarrik, taldea dago atzean. Gidoigilea Joxe Rojas da eta, azken finean, bera da burua, ideia eduki zuena. Egia esan, ez dut gogoratzen nola iritsi ginen Marimaistra sortzera. Joxe eta biok mila ideia izan genitzake, baina

horiek non gauzatu beharra genuen. Marimaistra ez da nik igande arratsaldean grabatutako zerbait, sekulako lana dauka. Goienako Iban Arantzabal lagun daukagu eta asko gustatu zitzaion proiektua. Orduan, orain bi urte grabatu genuen programa pilotua eta orain arte!

-“Maitiok”, “ederrok”, “bihotza”... horrela bai ikasten dela gustura!

Ez dakigu nola sortu zen berba egiteko modu hori. Noizean behin kartak botatzen dituztenak ikusten ditut telebistan eta konturatu naiz eurek berba horiek erabiltzen dituztela. Joxeri komentatu nion eta esan zidan ez zegoela hortaz konturatuta. Beraz, ez dakigu pertsoniak hori eskatzen duelako den horrela edo zer. Marimaistra beti dago haserre, zoroa da eta asko sufritzen du, eta hori hitz goxoei orekatu beharra dauka. Horrelako gauza bat egin nahi baduzu, umore puntu bat behar duzu, istrionismoa eta erridukilizazioa.

Ekhi Velar

DESCUBRE-TE
Teak, kafeak, txokolateak, ezti... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia
943 03 15 81 · descubrenew@hotmail.com
www.teteriadescubre-te.com

Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

Itsasontzi baten...

Gure eskolako 5 urteko kideek Itsaso munduan sartuta ibili dira 3 astetan zehar. Denen artean itsasontzi ederra egin dute inauterietan ITSASOA gaia adierazteko eta esfortzu handiak egin dituzte koloreak, forma, tamaina eta abar erabakitzeko gelako talde guztien artean. Itsasontziak, "Polita" hain zuzen ere, liluraturik utzi gaitu ikusi dugunean, ikusgarria benetan! Aratusteak pasatu dira eta "Polita"-k beste betebeharra izango du: Garraioak gaia ikasiko dutenez sakonki ikasiko dute nola-koak diren benetako itsasontziak.



Maiatzean, 4.mailakoak Lekeitiora joango zaizkigu itsas munduan murgiltzera



Denon artean errazago

Esaldi hau eskolako leloa dugu azken hiru urte hauetan eta etorkizunean mantentzeko asmoa dugu. Ekipoetan lan egiten badugu ikastea errazagoa dela konturatu gara. Horretarako, gure maisu-andereñoak egun askotan elkartzen dira, taldeka nola lan egiten den ikasteko eta gero guri irakasteko. Haiek ikasle bihurtzen dira eta laguntza jasotzen dute. Horregatik, Pere Pujolás, Vico Unibertsitateko irakaslea etortzen da irakasle guztiei prestakuntza ematera. Oso gustura lan egiten dugu modu honetan, gure iritziak emateko aukera daukagulako, baina baita ere gure lagunaren laguntza jaso edo eman ahal dugulako. Adi egon behar gara beti, ekipoko emaitza zuzenak lortzeko. Giro ederra sortzen da gelan denok taldean buru belarri lanari ekiten diogunean

ONGARAI ESKOLAKOEK IDATZITAKO ALBISTEAK


Udal Euskaltegia
 Teresa Murga Eraikina
 Goienkale z/g 2. solairua
 ERMUA · 943 170 925
 ermukoudaleuskaltegia@gmail.com


san pelayo
 clínica dental hortz klinika
 San Pelayo 5, 1º
 Ermua (Bizkaia)
 Olatz García Arregui
 943 17 04 04


MILLA
 ileapaindegia
 Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

T XALAPARTA
 ABERNA
 Eta asteburuetan
 pintxoak, afariak
 eta bokatak!
 Erdikokale 13
 (Ermua) **ENKARGVAK**
 943 030 299

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...


 optika
itze
 ✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
 ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA
 Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

AITOR ORTEGA

- Mutil koxkor zinela futbolearen aritzen zinen beti

Jaio nintzenetik baloiari pegatuta bizi izan naiz (barre artean).

--Zeinek zaletu zintuen?

Aitak. Harekin joaten nintzen futbol partiduak ikustera, futbolearen jokatzera...

- Ikasketarik?

Batxilerra bukatzean, goi mailako kirol modulua ikasi nuen bi urtez. Eta orain fisioterapia ikasten nabil.

- Entrenatzaile ardura hartu al duzu inoiz?

Duela hiruzpalau urte SD Eibar-eko Futbol Eskolan izan nintzen entrenatzaile, baina denbora asko izan ez, eta utzi egin nuen.

- Ibilibide oparoa duzu...

Ikastolako futbola utzi eta hiru urte egin nituen Athletic-en. Gero, Eibarren sartu eta 2011ra arte bertan ibili naiz.

- Zein partidu nabarmenduko zenuke?

Pasa den urtean Getxoko Arenasekin bigarren mailara igotzeko play-offa jokatu nuen. Azkeneko partidua galdu, eta arantza hori daukat.

- Iazko denboraldian hiru gol sartu zenituen. Aurten goan marka hori gainditzerik?

Momentuz ez. Bi gol daramatzat oraingo denboraldian eta.

- Erdiko jokalaritza teknika zarena esaten dute...

Baloiarik gabe sufritzen dut! Estrategia jokaldiak prestatzen ditut normalean.



Rosi eta Antonioren seme - alabarik gazteena da Aitor Ortega Asenjo. Bigarren B mailako Amorebieta Futbol Taldean jokatzeko du, Eibarrek utzita. Fin dabil zelaian, baita lapiko artean ere

- Zelan moldatzen zara gainontzeko postuetan?

Ondo. Txikitzen aurrean hasi nintzen, eta denborak aurrera egin ahala atzerantz etorri naiz.

- Astearen zenbatetan entrenatzen duzu?

Astearen lau egunetan gehi partidua.

- Lesiorik?

Lesio larrik ez, arinak bai. Duela hiru urte hezur txiki bat irten zitzaidan orkatilan, eta pare bat hilabete geldirik egon nintzen.

- Futbolari batek anbizioa izan behar du?

Bai futbolearen, baita bizitzan ere!

- Zer deritzozu nazioarteko jokalaritza gazteen fitxaketak mugatzen dituen FIFA-ko legeari?

Positiboa delakoan nago. Askotan oso gazte fitxatzen dituztelako eta euren etxetik urrundu.

- Emakumezkoen futbol liga?

Bistakoa da ez duela gizonen ligak duen oihartzun bera. Baina indarra

hartzen ari da, eta gizartearentzat onuragarria da hori.

- Futbolari bat?

Zinedine Zidane. Berak entrenatutako talde baten aurka lehiatu gara aurten eta gertutik ikusi dut.

- Zein da zure zenbakia?

10a gustatzen zait, zenbaki finkorik ez dugun arren.

- Denbora librean zer?

Lagunekin egoten naiz, mendira joan, sukaldean ere gustura ibiltzen naiz...

- Biziorik?

Jatea.

- Musika talde bat?

Su Ta Gar.

- Bidaia bat?

Neguan Alpetara, udaran Hawaiiira.

- Mendi bat?

Urko. Etxekoa denez...

- Eguneko unerik gozoena?

Jaikitzerakoan, bizitzak bestelako aukera bat ematen dizulako.

- Erraz haserretzen zara?

Ez, umore onean izaten naiz beti.

- Akatsik baduzu?

Berandu heltzen naiz askotan.

- Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Munduan goserik ez dagoela.

- Hizkuntzekin ondo moldatzen zara?

Bueno... gustatuko litzaidake!

- Etorkezinean...

Futbol edo kirol munduan lan egitea gustatuko litzaidake.

Leire Elustondo

Pub Dakota



Probaleku, z/g Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

KRABI

Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Multikirola, kirolaren beste ikuspegi bat

Ermuko umeez ez dute zertan Indiara joan yoga egitera, ezta Suediara curlingean aritzera ere. Bidaia politik izango lirateke ziurrenik, baina herrian badago kirol horiek eta beste asko egiteko aukera luzatzen duen programa: Multikirola. Kirol oinarri zabala eta proposamen anitza eskaintzen du, umeen begiak kirol orotara zabaltzeko.


Betiondoko kirolgunean rokodromoan paretan gora doaz umeak. Soka ondo lotuta monitore espezializatuaren begiradapean, begiak gora helmugaren bila, eskuakin koskak heldu eta hankekin bultza egiten dute. Behean daudenean, bitartean, barre egiten dute eguneko txistekak kontatzen. Ondo ari dira pasatzen. Goian dago jada eskalatzailea! "Aupa!", oihukatzen dute behetik. Jaitsi eta beste batek hartuko du txanda.

'Ingurune naturala' izeneko multzoaren barruan praktikatzen dute eskalada Multikirola programan parte hartzen duten umeez. Izan ere, kirol guztiak multzoka sailkatzen dira programa horretan. 'Baloia eskuetan' multzoan saskibaloia, eskubaloia, errugbia... lantzen dituzte, 'Erritmoa' multzoan aerobika eta dantza, 'Herramintan' herri-kirolak, eta horrela urtean zehar

hainbat eta hainbat kirol gauzatu arte.

Antton Garcia da Multikirola programaren koordinatzailea eta, bere iritziz, "apustu potoloa" egin dute. Ikastetxeetako Guraso Elkarteekin elkarlanean sortutako zerbitzuak da Multikirola eta kirol oinarri zabala eskaintzeko apustu irmoa egin dutela azaltzen du. "Uste dugu Lehen Hezkuntzan kalitatezko hezkuntza fisikoko jarduerak eskaini behar direla eta horretan saiatzen gara".

Helburuen artean daude, besteak beste, kirol batean baino gehiagotan aritzeko aukera eskaintzea, gero umeez euren gaitasun edo interesei egokitutako kirolak aukeratzeko; norbanakoaren eguneroko bizitza eta kirol jarduerarako onuragarria izango den oinarria lortzea; euskarazko ingurunean kirola egitea; eta kirolari eta pertsona gisa hezteak. Horrela, lehiaketa albo



batera uzten du Multikirolak. "Horretarako edukiko dute denbora aurrerago", dio Garcia.

Gutxieneko kirolen erakuslelho

Ikasturte honetan 6 eta 9 urte bitarteko umeez dihardute Multikirola programaren barruan. Anaitasunako 1. mailatik 3. era, eta Ongaraiko 1. tik eta 2. mailara bitarteko 70 haur dabilta aurtan. Astean behin ordubeteko saioa egiten dute, ikasturte hasieran euren aukeraturako ordutegian. Horrela, umeez hasieratik ikasturte osoko programazioa jasotzen dute egun bakoitzean egingo duten jarduerekin.

Kirol aniztasunarekiko apustuak, bestetik, Ermuko hainbat kirol elkarten laguntza jasotzea ekarri dio Multikirola

programari. "Aurtan egingo ez bada ere, iaz Ermuko Txirrindulari Taldeak txirrindularitza praktikatzeke aukera eman zizun eta asko lagundu zizun". Izan ere, "gutxienekoak diren kirol klubentzat erakuslelho izan daiteke", Garciaen usteetan.

Antton Garcia koordinatzaileak, gainera, monitoreen profesionaltasuna azpimarratzen du, "formakuntza espezifikoa daukate". Hizkuntza, bestetik, euskara da. "Euskara hutsean egiten ditugu saio guztiak; hori oso garrantzitsua dela deritzot". Horrela da. Rokodromoan umeez euskaraz mintzatzen dira eta euskaraz kontatzen dizkie elkarri euren kontuak. Bitartean, beste ume batek lortu du paret eskalatzea.

Ekhi Velar



Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Ezberdinak bai, baina aukera berdinekin bizi nahi dugu

Egia bada ere emakumeak eta gizonak ezberdinak garela, egia da ere aukera berdinekin izan beharko genituzkeela. Patriarkatuak inposatzen digu jaiotzaren sexuaren arabera zeintzuk izango diren gure trebeziak, nortasunak eta mugak. Horren ondorioz ikasten dugun zein den gure lekua munduan. Oraindik gaur egun emakumeok gure etheen ipar izarrak izaten gara, gizonen argia oster, arlo sozialean erraz ikus dezakegu, salbuespenak gero eta ugariagoak badira ere. Printze edo printzesa egiten gaitu plastilina izango bagina bezala; nolakoa izango den gure sexualitatea, bikote harremanak, nolakoak izango diren gure familiak... irakasten digu. Konturatzen ez bagara ere, he-

men barruan sortzen da emakumeen kontrako tratatu txarren hazia, hainbat kasutan emakumeen hilketen sortzaile izanik.

Urteetan askotan galdetu diot nire buruari ea nola apur dezakegun zurrumbilo hau, batzuetan erantzuna ur gardena bezain argia agertzen zait, behar dugun tresna heziketa da... edo berreziketa. Zera esan nahi dut, jasotzen dugun heziketak horrelakoak egiten bagaitu, berridazte hutsak desberdinak egingo gaitu. Horrela ikasitako hainbat eredu sexista kolokan ipiniko ditugu. Horren ondorioz, guk aukeratuko dugu zein den gure lekua munduan eta zein "printze" edo "printzesa" mota izatea nahi dugun. Gure barruan baitaukagu, askotan ezkutu, libreak egingo gaituen ha-



Lurdes Perosanz

zia, betiko emakume estereotipoa apurtu baino ez dugu egin behar. Lege eta ekonomia arloan berdintasuna lortu badugu ere, gure eguneroko bizitzan ez dago benetakako berdintasunik.

Baina ama, ahizpa, irakasle, politikoa garen aldetik, zer irakatsiko diegu gure alabei? Bere bizitzaren jabe izan daitezkeela, ez? Nola? Emakume estereotipo tradizionalak apurtuz; gure alabak ez dira zertan izan behar ahulak, xumeak... Eta emakumeen eredu positiboak sortuz. Azkenik, gure semeen ereduak ere aldatu behar ditugu, irakatsiz emakumeen potentziala baloratzen.

Betiko emakume estereotipoa apurtu behar dugu



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
 48260 · Ermua · Bizkaia

solozabal tabakoak

torrekua 1
 tel./fax: 943 17 07 33



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Giltzak
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Brikolajea
- * Kit altzariak
- * Ebnailak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

ETXEBIZITZA SALGAI

Etxebizitza salgai, guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, 2 komun, egongela, sukalde berria, 5 horma-armairu, trasteroa, igogailua, argitsua (130 m erabilgarri edo 156 m eraikiak). Eibarko erdialdean. Deitu 626 20 38 38 edo 699 49 52 49 telefonora.



Martxoaren 5 eta 12a:
Zorionak David eta Eder familiaren partez!



Martxoaren 29a:
Zorionak Jone! Aitzol, ama eta aitaren partez egun zoragarria pasa dezazun. Eta 12 musu denen partez!



Apirilaren 1a:
Zorionak Ramon! Egun zoriontsu bat pasa dezazun eta musu handi bat Jone eta Aitzolen partez!



Martxoaren 28a:
Zorionak Maite! Musu handi bat etxeko guztien partez eta batez ere Jone eta Aitzolen partez!



Martxoaren 18a:
Zorionak Ander zure bosgarren urtebetetzean guraso eta Gorkaren partez. Musu eta besarkada handi bat!

Hurrengo zenbakirako azken eguna: APIRILAREN 20a



Martxoak 12a:
Zorionak Ama! gure printzesak urtebete! Amatxo, aitatxo eta Ermuko familiaren partetik. Muxu handi bat!



Apirilak 18a:
Zorionak Luken! Ondo pasa zure egunean, patxo haundi bat zure familiaren partez!

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

PUB YOMY

Zubiaurre kalearen bihotzean

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

**MALLABIA
1985**

Argazki hau 1985eko Korrika Mallabitik pasatu zenean aterata dago. Korrikaren 4. edizioa zen eta maiatzaren 31tik ekainaren 9ra ospatu zen. Atharratzen hasi eta Iruñean bukatu zen.

Bertan agertzen dira besteak beste, Jabier Arana, Maribel Ferreiro, Edurne Ruiz, Jose Antonio Bollegi, Arrate Carrillo, Felix Uribarri (Berriz), David Ferreiro, Juan Luis Gallastegi, Jon Bazeta (Berriz), Aitor Uribe, Jose Luis Mugarza, Rafael Rubia (?),...

**ERMUA
1997**

1997an egin zen 10. Korrika eta Ermutik igaro zen momentuan ateratako argazkia da ezkerrean ikusgai duguna. Lekukoa eramaileak Arantza Totorika eta Miren Edurne Elejondo andereñoak dira.

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOKOAK

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

Nazioarteko Liburu Eguna ospatuko da apirilaren 23an, William Shakespeare eta Miguel de Cervantes (besteak beste) hil ziren egun berean. Literaturaren ikur bi horiek paperean gauzatu zituzten euren maisulanak, baina gaur egun anitzak dira beraien obrak irakurri ahal izateko dauzkagun euskarriak.

Liburuak irakurtzeko: papera edo euskarri digitala?



Digitalean irakurtzea dut nahiago. Erosoagoa da eta liburu bat gustatzen ez bazait, berehala beste bat irakurtzen hasi naiteke. Gainera, ez dut liburu sorta eskuan eraman behar. Liburuak deskargatzea oso erraza da eta denetarik daukazu interneten. Nik paperean ez nuen asko irakurtzen, baina digitalean asko.

Mauri Garcia, 44 urte



Gehiago gustatzen zait digitalean irakurtzea. Hala ere, ez dut irakurtzeko ohitura handirik, izan ere, orain ikasketekin buru-belarri nabil eta ez daukat denborarik. Digitalean irakurtzea erosoagoa da. Paperean irakurtzeak baino gehiago erakartzen nau digitalean irakurtzeak.

Hicham Mazgout, 22 urte



Papera. Tradizionala naiz zentzu horretan. Badaukat e-booka, baina nahiago dut papera. Digitalean irakurtzerakoan bista nekatzen zait. Pentsatzen dut denborarekin euskarri digitalean irakurtzera ohituko naizela, baina momentuz ez dut pauso hori eman.

Mainer Diaz, 34 urte



Nahiago dut papera. Liburutegiko Irakurketa Klubeko kidea naiz eta paperean irakurtzen dugu bertan. Batzuetan irakurri izan dut euskarri digitalean, baina gutxitan. Liburu berrien usaina gustuko dut, orria pasatzea... digitalean orria pasatzerako orduan batzuetan ez dit kasurik egiten!

Ariane Perez, 24 urte



- Orain, Internet bitartez ari dira liburuak jaisten.



Tasio eta Sabino

- Baina ez dira eroriko, ezta?

ZINEA

4tik 6ra

11tik 13ra

18tik 20ra

25etik 27ra

Ermua Antzokian. Hainbat film eta ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 2

Hilak 9

Hilak 16

Hilak 23

Hilak 30

Ermua Antzokian. Hainbat film. 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 5

Hilak 12

Hilak 19

Hilak 26

Ermua Antzokian. Hainbat film. 17:00etan.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 7 eta 24:

Barixakuetan: haurrentzako ipuin kontaketa.

17etan. Orbe Kardenalaren plazan.

MUSIKA

Hilak 24:

Kontzertua: Chano Domínguez & Niño Josele. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€

**ANTZERKIA**

Hilak 17:

"The Gagfather", Yllana Teatroaren eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€

**ERAKUSKETAK**

Hilaren 13tik 27ra:

Argazkiak: "Herriaren koloreak". Pedro Zarrabeitia.



Hilaren 29tik 3ra:

Antzixiketaren taldea XX. urteurrena.

**DANTZA**

Hilak 18:

Euskal Jaia: Dantza erakustaldia: Associació Cultural Grupo de Danses de Cabanes, Kezka Dantza Taldea eta Txindurri Dantza taldea + Erromeria: Alai taldea. 18etan. Orbe Kardenalaren plazan.



Hilak 19:

Euskal Jaia: Kalejira (12etan). Dantza erakustaldia eta haurrentzako erromeria (18etan).

Hilak 25:

Gaztela-Leoneko eguna: Kalejira: (12etan) + dantza erakustaldia (18etan). Orbe Kardenalaren plazan.

Patxi López



TXINDURRI
TALDEA
Tokian tokiko

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINZA BEREZIA
OSTRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

ESKERRIK ASKO



19. KORRIKAn laguntzeagatik

MALLABIA

TXAPARRADA KULTUR ELKARTEA - PILOTA ESKOLA - BIHARKO IZARRAK PILOTAZALEAK
ESKOLAKO GURASO ELKARTEA - DUATLOI TALDEA - BERBALAGUN - FUTBITO - MALLABIKO ESKOLA
GAZTE ALAI DANTZA TALDEA - MALLABIKO UDALA - NAHIKARI EMAKUME TALDEA - MENDIBIL ABESBATZA
JASOKUNDE ABESBATZA - MALLABIKO GAZTE TALDEA

ERMUA

ARTARRAI MENDI TALDEA - INFRENU TABERNA - PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO LAGUNAK
TXINDURRI DANTZA TALDEA - ERMUKO IRAKASLEAK - EAJ - TENNECO AUTOMOTIVE LANGILEAK - EUSKAL BIRUSA
BERTSO ESKOLA - EMAKUMEEN ASANBLADA - IRULITXA FANFARREA - EL CENTENARI FC BARTZELONA ZALEAK
AURTEN BAI ERREALZALEAK - ALBOKA MUSIKA ESKOLA - HERRI MUGA ATHLETICZALEAK
UDAL EUSKARA SAILA - ARTAPE - ERRETENA - URDINAK - ARARI - TXALAPARTA - MALENGO - EGARRI
TENNECO INNOVACION - ELA TENNECO - IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA - ESKILARAPEKO ATENEOA
MERKATARI ELKARTEA - BERBALAGUN - ANTIXITXIKETAN - GAZTE ASANBLADA - NUSHU - ZIPRIZTINTZEN
ERMUKO IKASTETXEAK (SAN LORENZO, ESKOLABARRI, ANAITASUNA, ONGARAI, ONGARAI BHI)



Aurten **Antxitxiketanen 20. urteurrena** ospatuko dugu maiatzaren 2-3an.

Ermuan begirale izandakoekin harremanetan jarri nahian gabiltza eta argazki bilduma bat osatu nahian.

Begirale izan bazara, jarri gurekin kontaktuan antxitxiketanermua@hotmail.com helbidearen bidez eta argazkiren bat laga nahi badiguzu utzi Lobianon ondorengo datuekin argazkia bueltatu ahal izateko: izen abizenak eta telefono zenbakia, argazkiaren urtea eta agertzen direnen izenak ahal izanez gero.

Apuntatu data zuen agendetan sorpresa ugari prestatu ditugu eta!



hari gara

ehbildu Ermua

SUSTRAIAK ERROTUZ...

- .Ermuarrak politikaren ardatz
- .Aberastasunaren birbanaketa
- .Makroproiektuen kontra ermuarron bizi kalitatea hizpide
- .Etxebizitza denontzat eskuragarri
- .Gaztegunea, gazte herriaren eraikuntzaren oinarri
- .Euskaraz biziko gara!!
- .Berdintasun printzipioa udal barnean zein kanpoan
- .Osasun sisteman pertsonak eta prebentzioa ardatz
- .Udal tasa eta zergen ordainketan diru sarrerak kontutan
- .Kirola doan egiteko aukerak handiagotu
- .Partehartze aktiboa eta iraunkorra bermatu

ERMUA ERAIKITZEN !!